

6 mantangorri

iRAKURRI, ETA ONDO PASA!
**MARTINBER ETA
LAGUN • Kultura**
**Irritxoen
Eguna,
Errenterian**

Itxura berezia izango du bihar Errenteriak (Gipuzkoa); kolorez jantziko dira herriko txokoak, eta irria, umorea eta zalaparta izango dira herriko protagonistak. Zer dela-eta halako itxura aldaketa? Bihar ospatzen delako Irritxoen Eguna!

Jolasgune erraldoi bat bihurtuko da bihar herria. Orotara, jolasera zortzi gune ezarriko dituzte; denak herrigunetik gertu-gertu. Guneetan, irritxoentzako denetariko ekintzak eta jarduerak egongo dira: puzgarriak, jolasak, Txan eta Eriz magoen emanaldiak, erraldoiak, buruhandiak,



Olentzero eta hainbat lagunekoz inguratuta aurkeztu zuen Porrotxek Irritxoen Eguna.

dultzaineroak, txistulariak, trikitilarriak, antzerki ikuskizunak, eskalada gunea, rappela, tirolina...

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak ere han izango dira, irritxoen eguna ospatzen. 17:00etan eskainiko dute emanaldia, Galtzaraborda kiroldegian.


Eguneko jarduera eta ekintza guztiek doan izango dira, baina pailazoen emanaldirako sarrera erosio behar da. www.irritxoeneguna.info webgunean edo <http://barbabarra.eu> atarian daude sarrerak salgai. Egitarau osoa eta festaren inguruko informazio guztia ere webgune horietan duzue.

Egun luzea izango da biharkoa, 11:00etik iluntzeko zortziak arte iraungo baitu festak. Egun ahaztezina izango da, inondik ere.

DENBORA-PASAK**1. Zazpi aldeak**



Dortoka eta arrainen artean igerian ibili zen joan den asteburuan Mikel.

**Argazkiari zazpi
aldaketatxo egin
dizkiogu. Bilatu!**

**Erantzunak**

2.- B eta F.

1.-

**2. Bikiak**

Eguzkitik babesteko bisera berria erosi du Enekok. Eskolako lagun batek berdina du. **Zein dira bi bisera berdinak?**

a)



b)



c)



d)



e)



f)



g)



h)

